

1/2015 akta

OSATEK S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2015eko MARTXOAREN 27an EGINDAKO BILERAREN AKTA.

Lehendakariak deituta Administrazio Kontseilua osatu da Osatek S.A. sozietateak Bilboko Bizkaia Plaza eraikinean duen egoitzan 2015eko martxoaren 27an eguerdiko 12:00etan. Jarraian adierazi dira bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Guillermo Viñegra García jauna

BATZORDEKIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jauna.

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna.

Antonio Arraiza Armendariz jauna.

Fernando Aguirre De Miguel jauna.

Susana López Altuna andrea, idazkari-lanetan.

Aipatutakoez gain, bileran bertaratu dira hitzarekin baina botorik gabe Enrique Gutiérrez, zuzendari kudeatzailea, Jesús Escauriaza ekonomia- eta finantza-zuzendaria eta Pedro Odriozola, Osatek S.Aren kontuen kanpoko auditoretza-enpresa den Betean S.A.ren auditorea.

Ezinbesteko arrazoi batengatik ezin etorria adierazi du Pedro M^a Hernando Arranz jaunak.

GAI ZERREDA:

- 1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**
- 2. Urteko kontuen formulazioa eta auditoretzaren txostena**
- 3. 2015eko aurrekontu-aurreikuspenak**
- 4. Galde-eskeak**

1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.

2.- Urteko kontuen formulazioa eta auditoretzaren txostena

Kanpoko auditoreak adierazi du urteko kontuei dagokienez egindako auditoretzaren arabera, kontuek enpresaren egoera modu zehatzean islatzen dutela, eta bereziki azpimarratu du Osakidetzarekiko eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekiko eta Gizarte Gaien Sailarekiko mendetasun-erlazio esanguratsua.

Bere azalpena amaitzean bileratik irten egin da batzordekideek bere parte-hartzea eskertu ondoren.

Jarraian, zuzendari ekonomikoak aipatutako kontuen eta itxiera ekonomikoaren daturik esanguratsuenen berri eman du:

3.1. 2014ko egoera-balantzea:

Aktiboa guztira (korrontea eta ez-korrontea): 13.965.616

Ondare garbia + pasiboa: 13.965.616

3.2. 2014ko G eta Ien kontua:

Galerak eta irabaziak: (595.186)

3.3. Memoria:

Emaizten banaketa

Banaketa-oinarria: Galerak eta irabaziak: (595.186)

Ibilgetu materiala:

Amaierako balio garbia: 6.664.534

Ibilgetu ukiezina:

Amaierako balio garbia: 0

Zerbitzua eskaintzea:

EM: 14.119.620

Telelaguntza: 6.611.676

Guztira: 20.731.296

Plantilla finkoa guztira 2014/12/31n: 116

Hornitzaileen ordainketa atzeratuak:

Ekitaldiko ordainketak guztira: 14.034.999

Itxiera-datan legeak ezarritako gehienezkoa gainditzen duten atzerapenak:
297.974

PMPE: 38

3.4. Kudeaketa Txostena:

Irudi bidezko diagnostikoa:

2014an guztira 86.003 paziente artatu dira, hau da, 2013arekiko % 2,51eko hazkundera izan da.

2014an 113.309 miaketa egin dira, hau da, 2013arekiko % 3,93ko hazkundera izan da.

Gizarte Telelaguntza (Betion):

2014ko abenduaren 31ra arte 34.132 pertsonari eskaini zaie zerbitzua, hau da, 2013ko itxieran izandako datuekiko % 9ko hazkundera izan da.

Ekipamendu berriak:

Zumarraga Ospitalean 1,5Tko EM ekipo berria instalatu da; Donostiako UOn EM ekipo bat ordezkatu da 1,5Tko ekipo berri batekin; eta Donostia UOko ekipo baten osagaiak modernizatu eta handitu dira (bobinak eta softwarea).

Kalitatearen kudeaketa

ISO 9001:2008 Ziurtagiria: berritu.

ISO 14001:2004 Ziurtagiria: berritu.

Ekoscan arauaren ziurtagiria: Berritu.

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta eta uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzekoa denaren, 253. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

- "Lehenengoa: Sozietatearen 2014ko Urteko Kontuen formulazioa eta 2014ko Kudeaketa Txostena onartzea. Kontseiluan bertaratu diren kide guztiek sinatu dute beren adostasuna erakusteko.
- Bigarrena: Aipatutako Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta 2014ko ekitaldian Emaitzak Banatzeko Proposamena Akziodunen Batzar Orokorrari jakinaraztea, Kontseiluan aurkeztu diren terminoetan, eta horiek onartzeko proposatzea".

3.- 2015eko aurrekontu-aurreikuspenak

Zuzendari kudeatzaileak azaldu ditu Aurrekontuen Legean 2015eko ekitaldirako onartutako aurrekontu-aurreikuspenak eta 2015, 2016 eta 2017 ekitaldietarako aurreikusten diren inbertsioak.

Azken puntu honi dagokionez, Administrazio Kontseiluak eztabaidatu du San Eloy Ospitalean Erresonantzia Magnetikoaren beste unitate bat irekitzeko


dagoen beharra, eta erabaki du Iñaki Berraondo Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariarekin koordinatuta, egungo eta etorkizuneko beharrei buruzko txostena egitea Bizkaiko Lurraldean Erresonantzia Magnetikoaren arloan dagoen eskaera asumitzeko.

4.- Galde-eskeak

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da Kontseiluaren bilera adierazitako eguneko 15:00etan.



IDAZKARIA
Sin. Susana López Altuna



LEHENDAKARIA
Sin.:Guillermo Viñegra García